ASPACE Gipuzkoa

Asociación de Parálisis Cerebral
Elbarritasun Zerebralaren Elkartea



# LA ATENCIÓN TEMPRANA QUE QUEREMOS

## un modelo centrado en la familia

# Nahi dugun arreta goiztiarra: **familian zentraturiko eredu bat**

1

MEMORIA - JARDUNALDIA / JORNADA - Urtarrilak 21 enero 2016





## Elisa Carmona

**Aspace Gipuzkoako presidentea**
Presidenta de Aspace Gipuzkoa

“Nahi dugun arreta goiztiarra, familian zentraturiko eredu bat” jardunaldia, gertaera garrantzitsua suposatu du, bai Aspace Gipuzkoaren historiarako, baita Arreta Goiztiarrari lotuta dagoen egitura profesional, instituzional eta gizartearentzat ere.

Nazioko eta nazioarteko hizlari garrantzitsuen parte-hartzeak Arreta Goiztiarra familian zentraturiko eredu bat dela argi utzi du. Hau da, profesional eta gurasoen arteko elkarlana beharrezkoa dela azken hauek beraien seme-alaben aurrera pausoan beharrezkoak izan daitezen.

Aspace Gipuzkoa, Elkarte bezala, gustora geratu da jardunaldiaren emaitzarekin: EHUko Carlos Santamariako Auditoriuma bete harteko bertaratzea, hitzaldi benetan interesgarriak eta berrikuntzaren bidetik lanean jarraitzeko indarberritzea.

Aspace Gipuzkoak Gipuzkoako Foru Aldundiari bere eskerrik onena ematen dio, bereziki Maite Peña Gizarte Politiketako Diputatuari, lehen deskribaturiko 2016ko urtarrilaren 21eko jardunaldia ospatzea posible egiteagatik.

La jornada con el título “la Atención Temprana que queremos, un modelo centrado en la familia”, ha supuesto un nuevo hito, tanto para la historia de Aspace Gipuzkoa como para el entramado profesional, institucional y social relacionado con la Atención Temprana.

La intervención de ponentes de relevancia nacional e internacional ha puesto de relieve que la Atención Temprana es un modelo que debe centrarse en la familia, pues está pensado parta interrelacionar adecuadamente a profesionales y padres, para que estos sean la pieza clave en la progresión del niño/niña.

Aspace Gipuzkoa se siente satisfecha por el resultado de la jornada: asistencia hasta llenar del auditorio Carlos Santamaría de la UPV, interesantísimas ponencias y una carga de energía para seguir avanzando por el camino de la innovación.

Aspace Gipuzkoa agradece especialmente a la Diputación Foral de Gipuzkoa, en concreto a Maite Peña, Diputada de Políticas Sociales, por contribuir a hacer posible una jornada de las características descritas el 21 de enero de 2016.

ASPACE Gipuzkoa
Asociación de Parálisis Cerebral
Elbarritasun Zerebralaren Elkartea



# urria octubre 2015 urtarrila enero 2016

## IZEN EMATEEN BILAKAERA
## EVOLUCIÓN DE LAS INSCRIPCIONES





# urria octubre 2015 urtarrila enero 2016

## HITZALDIAK / PONENCIAS

Arreta Goiztiarraren eremuan erreferentziazko hizlarien aukeraketa egiterakoan, erabateko eraldaketan dagoen familien inplikazio eta partehartze zuzenean oinarritutako eredua hartu da kontuan, modu horretara orain arte indarrean egon den eredua gainndituz. Hizlariak aukeratzerakoan kontuan izan zen familian oinarrituriko Arreta Goiztiarraren eredu berri baten alde egiten duten bai nazio eta nazioarte mailan ospe handiko teknikariak.

Selección para intervención de ponentes de referencia en el ámbito de Atención Temprana, un modelo en plena transformación basado en la implicación y la participación directa de las familias, superando así el modelo vigente hasta ahora. La selección tenía en cuenta a especialistas de prestigio tanto a nivel nacional como internacional que abogan por un nuevo modelo de Atención Temprana, basado en la familia.

## IZEN EMATE GUNEA / ÁREA DE INSCRIPCIÓN

Ekitaldietarako izen emateetara zuzendutako eta diseinatutako plataforma web bat erabiltzea pentsatu zen. Formula honek interesatuak zeuden pertsonen izen emate zuzena ahalbidetzen zuen. Aurrez, beharrezkoa izan zen eremu sozialeko, zehazki Arreta Goiztiarreko, profesional, teknikari eta adituak biltzen zituen datu-base bat prestatzea. Ondoren, mailing bat zuzendu zitzaien jardunaldiko egitarauarekin eta plataforma weberako esteka zuzen batekin.

Se pensó en la utilización de una plataforma web dirigida y diseñada para la inscripción en eventos. Esta fórmula posibilitaba la inscripción directa por parte de las personas interesadas. Previamente, fue necesario habilitar una base de datos que incluyera a profesionales, técnicos y especialistas en el área social y más concretamente, en el área de Atención Temprana. Paso posterior: dirigirles un mailing con el programa de la jornada y un enlace directo a la plataforma web.



# urtarrila 15 enero 2016

Prentsaurrekoa Gipuzkoako Foru Aldundian
Rueda de Prensa en la Diputación Foral de Gipuzkoa




Gipuzkoako Foru Aldundiaren inplikazioari esker, Foru Aldundiko egoitzaren prentsa aretoan elkartu ginen komunikabideekin. Maite Peña, Gipuzkoako Gizarte Politiketako Diputatua, izan zen mahai buru, Esther Larrañaga, Aspace Gipuzkoako Zuzendari Orokorrak, eta Txus Gomara, Aspace Eskola Zuzendariak, lagundurik.

Gracias a la implicación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, nos reunimos con los medios en la sala de prensa del Palacio Foral. La mesa estuvo presidida por Maite Peña, Diputada Foral de Políticas Sociales, a la que acompañaron Esther Larrañaga, Directora General de Aspace, y Txus Gomara, Directora de Escuela de Aspace.

Bideoa ikusi
*Ver video*



# urtarrila 15 enero 2016

## Prentsaurrekoa Gipuzkoako Foru Aldundian
## Rueda de Prensa en la Diputación Foral de Gipuzkoa

Arreta Goiztiarraren garrantzia azpimarratu zuen, "0 eta 3 urte bitartean desgaitasun bat duten umeei eskainitako baliabidea, arreta honi esker euren trebetasunak garatzeko aukera ematen zaie". Arreta Goiztiarraren Dekretua aipatu zuen, "aparteko laguntza eskaintzea, Foru Aldundiko, Osasun Ministerioko eta Hezkuntza Ministerioen artean koordinatua, inork ez dezan zertan erakunde batetik bestera ibili behar beharrezko baliabideen bila". "2015. urtean zehar, Arreta Goiztiarrean 189 umeri eman zaie erantzuna" adieraziz amaitu zuen.



Subrayó la importancia de la Atención Temprana, "un recurso que se ofrece a niños de 0 a 3 años que tienen alguna discapacidad y a los que se les permite, gracias a esta atención, desarrollar sus habilidades". Se refirió también al Decreto de Atención Temprana, que posibilita "ofrecer una ayuda única, coordinada entre Diputación, Sanidad y Educación, sin que nadie tenga que saltar de una institución a otra en busca de recursos necesarios". Concluyó "durante 2015, en Atención Temprana se ha atendido a 189 niños".

### Maite Peña

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko Diputatua**
Diputada de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa

Maite Peña Diputatuaren ikuspuntua partekatu zuen eta "urteak damazkigu familiei protagonismo geihago emateko lanean, Arreta Goiztiarraren eredua berritzearen saiakeran, eta oraingoz, oso pozik gaude emaitzekin" erantsi zuen. Horrez gain, 2016ko urtarrilaren 21ean Aspace Gipuzkoak antolatutako Nazioarteko Jardunaldia aurkeztu zuen "Nahi dugun Arreta Goiztiarra, familian zentraturiko eredu bat" lelopean, hizlarien artean nazioarteko ospea duten pertsonak daudela gehituz.



Compartió la visión de la Diputada Maite Peña y añadió "llevamos años trabajando para otorgar más protagonismo a las familias, tratando de renovar el modelo de Atención Temprana, y de momento, estamos muy satisfechos con los resultados". Esther Larrañaga presentó la Jornada Internacional organizada por Aspace Gipuzkoa, que se celebró el 21 de enero de 2016 bajo el título "La Atención Temprana que queremos, un modelo centrado en la familia" añadiendo que entre los ponentes hay personas de prestigio internacional.

### Esther Larrañaga

**Aspace Gipuzkoako Zuzendari Orokorra**
Directora General de Aspace Gipuzkoa

Arreta Goiztiarraren ereduaren aldaketan oinarritu zen. Bere esperientziak erakutsi dio denbora luzeagoko arretak ez duela derrigorrean aurrerapauso handiagorik suposatzen, beraz, aldaketa ekarriko duen eredu baten alde agertu zen, "familian zentraturiko eredua, ahaldunduz eta gaituz, bere ingurunean era egokian funtzionatu dezan lortzeko". "Familia da adingabeen hezkuntzarako dagoen baliabide baliotsuena, beraz baliabide hau sendotu behar dugu eta arreta umeen inguru naturalean eskaintzen saiatuko gara", esanez amaitu zuen.



Se centró en el cambio de modelo en Atención Temprana. Explicó que su experiencia les ha demostrado que más horas de atención no suponen necesariamente más avance por lo que abogan por un modelo de cambio, "un modelo centrado en la familia, dándole autoridad y capacitándola, para conseguir que pueda funcionar de manera eficaz en su entorno". Concluyó: "la familia es el recurso más valioso para la educación de los menores, por lo que tenemos que fortalecer este recurso y tratar de ofrecer la atención en el entorno natural del niño".

### Txus Gomara

**Eskola Zuzendaria**
Directora Escolar



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián




08:45
09:10

Goizeko 8etan bertaratu ziren lehenengoak. 30 minutuan zehar ilara jendetsu bat osatu zen norberaren akreditazioa eskuratzeko. Aspace Gipuzkoako profesionalek atenditzen zuten mahai bat ipini zen. Bertaratuei akreditazioak eman zizkien jardunaldiari zegokion dokumentazioa eskura emanez.

Desde las 08:00h de las mañana acudieron las primeras personas asistentes. Durante 30 minutos se formó una nutrida cola de personas en espera de su acreditación. Se habilitó una mesa atendida por dos profesionales de Aspace Gipuzkoa. Acreditaron a los asistentes entregándoles además la documentación correspondiente a la jornada.

Bideoa ikusi
*Ver video*

# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián



**09:15**

EHUko Carlos Santamaría auditoriumera 220 pertsona bertaratu ziren. Ia beste 100 pertsonek ezin izan zuten sartu leku faltagatik. Jardunaldia baino bi aste lehenago, plaza guztiak beteak zeuden eta itxaron zerrenda handitzen zihoan, zentro bakoitzarekin kontaktuan jarri behar izan zelarik bakoitzetik zetorren kantitatea murrizteko.

Fueron 220 las personas que accedieron al auditorio Carlos Santamaría de la UPV. Al menos otras cien personas no pudieron hacerlo por falta de espacio. Dos semanas antes de la jornada, ya estaban cubiertas las plazas y la lista de espera iba creciendo, por lo que hubo que comunicarse con distintos centros para reducir el número de personas inscritas por cada centro.



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián




1.- **Gema González de Txabarri**
Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaria / Delegada Territorial de Educación de Gipuzkoa

2.- **Aitziber San Román**
Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkaria / Concejala de Acción Social del Ayuntamiento de Donostia

3.- **Maite Peña**
Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko Diputatua / Diputada de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa

4.- **Elisa Carmona**
Aspace Gipuzkoako Lehendakaria / Presidenta de Aspace Gipuzkoa

5.- **Lide Amilia**
Eusko Jaurlaritzako Giza Politiketako Sailburuordea / Viceconsejera de Políticas Sociales del Gobierno Vasco

6.- **Rafa Uribarren**
Gipuzkoako Osasuneko lurralde-ordezkaria / Delegado Territorial de Salud de Gipuzkoa

**09:15**
**09:30**

Arreta Goiztiarrarekin zerikusia duten instituzioetako ordezkaritza duten autoritateak bertaratu ziren. Denek Aspace Gipuzkoa Arreta Goiztiarraren esparruan eta orokorrean, Garun Paralisiaren munduan egiten ari den lan pedagogikoa eta gizarte lana goraipatu zuten.

Acudieron las autoridades representativas de las distintas instituciones implicadas en el modelo de Atención Temprana. Coincidieron todas ellas en la eficiente labor social y pedagógica que está realizando Aspace Gipuzkoa en el ámbito de la Atención Temprana y de la Parálisis Cerebral en general.

Bideoa ikusi
*Ver video*



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián




09:15
09:30

Instituzio bakoitzak bere diskurtsoa zegokion esparru eta errespontsabilitatetik bideratu zuen. Elisa Carmona, Aspace Gipuzkoako Presidentak, familian zentraturiko Arreta Goiztiarraren eredua azpimarratu zuen. Instituzioek gai honi eskaini behar dioten ulermen eta konpromisoaren garrantzia nabarmenduz.

Cada institución situó el discurso desde su ángulo de intervención y desde su responsabilidad. Elisa Carmona, como Presidenta de Aspace Gipuzkoa, insistió en la idea de que el nuevo modelo de Atención Temprana se centra en la familia. Concluyó poniendo acento en la importancia de la comprensión e implicación en esta tarea de las distintas Instituciones.



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián




09:30

Instituzioetako ordezkarien irekieraren ondoren, programa irakurri eta jardunaldira etorri izana esker- tu zitzaien bertaratuei. Jarraipen hari modura, Robert Fulghum, mundua ume begiekin begiratzen duen autore ipar amerikarraren testuak erabili ziren.

Tras el acto inaugural de los representantes institucionales, se procedió a la lectura del programa y se agradeció a las personas asistentes su asistencia a la jornada. Como hilo conductor se utilizaron los textos de Robert Fulghum, autor norteamericano que ve el mundo con los ojos de un niño.

Bideoa ikusi
*Ver video*

ASPACE Gipuzkoa
Asociación de Parálisis Cerebral
Elbarritasun Zerebralaren Elkartea



"Nahi dugun arreta goiztiarra:
**familian zentraturiko eredu bat**"

"La atención temprana que queremos:
**un modelo centrado en la familia**"



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

## PROGRAMA / PROGRAMA

| | | |
|---|---|---|
| Harrera eta akreditazioa. | 8:45- 9:15 | Recepción y acreditación. |
| Jardunaldiaren aurkezpena eta hasiera ematea. | 9:15- 9:30 | Presentación e inauguración de la jornada. |
| **Javier Tamarit:** Barne hartze osorako zerbitzuen eraldaketa: "nahi dugun arreta goiztiarra". | 9:30- 10:00 | **Javier Tamarit:** Transformación de los servicios para plena inclusión: "la atención temprana que queremos". |
| **Marilyn Espe-Sherwindt:** Familian oinarrituriko praktikak. | 10:00-10:30 | **Marilyn Espe-Sherwindt:** Prácticas centradas en la familia. |
| **Ana Maria Serrano:** Familia arreta goiztiarrean trebatu. | 10:30-11:00 | **Ana Maria Serrano:** Capacitar a la familia en atención temprana. |
| Kafea. | 11:00-11:30 | Café. |
| **Margarita Cañadas:** Familian oinarrituriko praktikak inplementatzen. | 11:30-12:00 | **Margarita Cañadas:** Implementando prácticas centradas en la familia. |
| **Jose Boavida:** Familian oinarrituriko arreta goiztiarra Portugalen: praktiketatik legegintzara. | 12:00-12:30 | **Jose Boavida:** Atención temprana centrada en la familia en Portugal: de las prácticas a la legislación. |
| **ASPRONA:** "Tratamenduen" ikuspegia gainditzen: ASPRONAko CDIATetako eraldaketa esperientzia. | 12:30- 12:50 | **ASPRONA:** Superando el enfoque de los "tratamientos": la experiencia de transformación de los CDIAT de ASPRONA. |
| **ASPACE GIPUZKOA:** Teoriatik praktikara: familien testigantzak. | 12:50- 13:15 | **ASPACE GIPUZKOA:** De la teoría a la práctica: testimonios de familias. |
| **Miguel Ángel Verdugo:** Minusbaliotasuna duten pertsonei babesa ematen dieten erakundeen berdefinizioa. | 13:15-13:45 | **Miguel Ángel Verdugo:** Redefinición de las organizaciones de apoyo a las personas con discapacidad. |
| Ondorioak eta Amaiera. | 13:45-14:00 | Conclusiones y Clausura. |





# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

## Barne hartze osorako zerbitzuen eraldaketa: "nahi dugun arreta goiztiarra"
## Transformación de los servicios para plena inclusión: "la atención temprana que queremos"

### Javier Tamarit



Javier Tamaritek familiaren parte-hartze eta egokitzapena umeak beharrezkoa duen kontrolerako ezinbestekoa dela azaldu zuen. Bere proposamena eredu ulerkor eta integratzaile batean kokatu zuen, arreta eta laguntzara bideratua. Barneratze osoko eraldatze proiektuaren nondik norakoak aipatu eta eraldatze horren oinarri kontzeptualak banan-banan azaldu zituen.

Javier Tamarit se refirió a la colaboración y capacitación de la familia como centro de intervención en el ámbito del niño. Su propuesta se centró en un modelo comprensivo e integrador de atención y apoyo. Explicó el por qué se está desarrollando un proyecto de transformación de plena inclusión y enumeró las bases conceptuales en las que se debe sustentar esta transformación.

**09:30**
**10:00**

Psikologoa. Kataluniado Universidad Obertako kalitate kudeaketako aditu titulua, Valladolideko Unibertsitateko Prozesuen Ahokularitzako eta Antolakuntza Garapeneko Masterra. Gaur egun FEAPSeko Bizi Kalitatearen Ataleko zuzendaria da.

Psicólogo. Experto en Gestión de Calidad por la Universidad Oberta de Catalunya, Máster en Consultoría de Procesos y Desarrollo Organizativo por la Universidad de Valladolid. Actualmente es Director del Área de Calidad de Vida de FEAPS.

Bideoa ikusi
*Ver video*



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

## Familian oinarrituriko praktikak
## Prácticas centradas en la familia

### Marilyn Espe-Sherwindt

Marylinek bere hitzaldirako eredu pedagikoa erabili zuen, bere azalpenean familia askok erantzunik jasotzen ez duten diagnosi zehatzik gabeko arazo baten aurrean bizi ohi duten frustrazioaren adibidea jarri zuen. Familia eta profesionalen arteko kolaborazioari eman zion garrantzia, familiek duten esku-hartzeari protagonismoa emanez eta beraien buruei dagokien esparrua zehaztuz umearen zainketa onerako. Bere hitzaldia ingelesez izan zuen eta Ana María Serranok egin zituen itzultzaile lanak.

La intervención de Marylin se distinguió por su método pedagógico de escenificar con ejemplos la frustración a la que pueden llegar las familias cuando se encuentran sin respuestas ante un problema aún no diagnosticado de forma certera. Enfatizó en la necesidad de colaboración entre familias y profesionales, dando protagonismo a la intervención de las familias y haciéndolas autosuficientes para el correcto desarrollo del niño. Su intervención fue en inglés y Ana María Serrano se encargó de la traducción simultánea.



**10:00
10:30**

AEBko Kent State Universityko haur eta familiaren ikaskuntza zentroko zuzendaria. Prestakuntza eta ikerketa zentro hori desgaitasunak dituzten haur txikien eta beren familien arazoez bakarrik arduratzen da. Bere ikerketa, argitalpen, aurkezpen eta tailerren ardatz izan dira familian, diagnostiko goiztiarrean eta espektro autistako nahasmendua duten haur txikientzako esku-hartzean eta familien parte hartzean oinarritutako praktikak, guztiak Portugalen gauzatutakoak.

Directora del centro de aprendizaje del niño y de la familia (FCLC) Kent State University, EE.UU. centro de formación e investigación que se centra exclusivamente en cuestiones relacionadas con los niños pequeños con discapacidades y sus familias. Sus investigaciones, publicaciones, presentaciones y talleres se han volcado en prácticas centradas en la familia, diagnóstico precoz y la intervención para niños pequeños con trastorno del espectro autista y participación de las familias en Portugal.

Bideoa ikusi
*Ver video*



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

**Familia Arreta Goiztiarrean trebatu**
**Capacitar a la familia en Atención Temprana**

## Ana María Serrano




Guraso eta profesionalen arteko erlazioaren garapenari eman zion garrantzia batez ere. Horrez gain, familian zentraturiko praktikaren gakoak zeintzuk diren azaldu zituen, umeengan, familiarengan eta gurasoengan dituen ondorio eraginkorrei esker. Bere ustez, praktika erlazionalak eta parte-hartzaileak existitzen dira eta gako nagusiak familiak ahalduntzea eta gaitzea dira. Ume hauen familiei dagokien laguntasun eta errekurtsoak ematean datza instituzioetako eta gizarte elkarteen lana.

Destacó sobre todo la importancia y el desarrollo de una relación de colaboración entre padres y profesionales. Asimismo expuso cuáles son los elementos clave de la práctica centrada en la familia, por considerarlos más eficaces los efectos sobre los niños, los padres y las familias. Existen a su juicio las prácticas relacionales y las participativas y los conceptos claves son el empoderamiento de la familia y su capacitación. Se trata de proporcionar apoyo y recursos a las familias de los niños por parte de miembros de instituciones y asociaciones sociales.

10:30
11:00

Psikologoa. Arreta Goiztiarreko espezialista. Universidade de Minhoko Hezkuntza Institutuko irakaslea, CIEd-eko ikertzailea, Associação Nacional de Intervenção Precoce (ANIP) elkarteko zuzendaritzako kidea eta Arreta Goiztiarreko Europako Elkarteko (EURLYAID) Lehendakaria.

Psicóloga. Especialista en Atención Temprana. Docente del Instituto de Educación da Universidade de Minho, investigadora do CIEd. Miembro de la directiva de la Associação Nacional de Intervenção Precoce (ANIP) Presidenta de la Asociación Europea de Atención Temprana (EURLYAID).

Bideoa ikusi
*Ver video*



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

## Familian oinarrituriko praktikak inplementatzen
## Implementando prácticas centradas en la familia

### Margarita Cañadas

Familian zentraturiko praktikez hitz egin zuen. Profesionalak familiarekin eta umearekin elkar eragiten du. Etxeko ohiturak aukerez beteak daude umeek ikasi dezaten. Batez ere 3 gai bereizten ditu: lidergoan oinarrituriko inplementazio taldeak osatu, datuak lortu eta berritze gaitasuna duen azpiegitura iraunkorra bultzatu. Profesionalen formakuntza egokiaren gakoak aipatu zituen eta bere burua jarri zuen eredutzat, profesional baten eraldaketa erakusteko eta familian oinarrituriko praktiketan erabiltzen diren eredu berriak onartzeko.

Habló de las prácticas centradas en la familia. El profesional interactúa con la familia y el niño a la vez. Las rutinas de casa están llenas de oportunidades para que los niños aprendan. Destaca 3 cuestiones capitales: la construcción de equipos de implementación con capacidad de liderazgo, la extracción de datos y la infraestructura sostenible con capacidad de innovación. Incidió en las claves para la formación eficaz de profesionales y se puso a ella misma como ejemplo de transformación profesional para aceptar los nuevos métodos de las prácticas centradas en la familia.




**11:30**
**12:00**

Terapia Okupazionaleko Dekanoordea eta "San Vicente Mártir" Valentziako Unibertsitate Katolikoko "L'Alqueria" Haurren Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko Zentroko zuzendaria.

Vicedecana de Terapia Ocupacional y Directora del Centro de Desarrollo Infantil y Atención Temprana "L'Alqueria" de la Universidad Católica de Valencia "San Vicente Mártir".

Bideoa ikusi
*Ver video*



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

## Familian oinarrituriko Arreta Goiztiarra Portugalen: praktiketatik legegintzara
## Atención Temprana centrada en la familia en Portugal: de las prácticas a la legislación

### José Boavida



12:00
12:30

Ume bat bere lehen 3 urteetan inguruan dituen eraginei oso sentikorra dela egiaztatu zuen. Denbora tarte hori ikasteko aukera dela azaldu zuen eta garunaren osaketan eta eginkizun erabakigarria den denbora tartea bezala azaldu zuen. Coimbrako 1989ko proiektua aipatu zuen, Portugaleko eredu naziolaren aintzindaria. Zerbitzu ezberdinen artean parte-hartze eredu bat lortu zen ume bakoitzaren arretarako, bai arriskupean zeudenentzat, edo "behar bereziak" zituzten familientzat ere. SNIPI eredua ere azaldu zuen, eta osasun arloko profesionalen ardura zein den esplikatu.

Constató que los 3 primeros años de vida de un niño son sensibles a las influencias ambientales. Suponen una oportunidad para "aprender" y un período decisivo en la conformación de la arquitectura y función del cerebro. Se refirió al proyecto de Coimbra de 1989, precursor del modelo nacional portugués. Se logró un modelo de colaboración entre diferentes servicios de atención individualizada a niños de riesgo y/o con "necesidades especiales" y sus familias. También expuso el modelo SNIPI, y explicó cuál es el papel de los profesionales de la salud en Portugal.

Coimbrako Pediatria Ospitaleko Garapen Zentroan haurren garapenean espezializatutako pediatra.

Portugaleko Osasun Ministerioaren ordezkaria Arreta Goiztiarreko Sistema Nazionalaren Koordinazio Batzordean.

Pediatra especializado en Desarrollo Infantil en el Centro del Desarrollo del Hospital Pediátrico de Coimbra.

Representante del Ministerio de Sanidad del Gobierno de Portugal en la Comisión de Coordinación del Sistema Nacional de Atención Temprana.

Bideoa ikusi
*Ver video*



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

## "Tratamenduen" ikuspegia gainditzuz: ASPRONAko CDIATetako eraldaketa esperientzia
## Superando el enfoque de los "tratamientos": la experiencia de transformación de los CDIAT de ASPRONA

Juan Martínez / Cristina Díaz

ASPRONAko CDIAT Albaceten aurkitzen da. Familiak eta inguru naturalek eskainitako laguntzetan oinarrituriko Arreta Goiztiarrean eredua praktikatzen dute. 2013-2014 bitartean proiektu pilotuan buru-belarri lanean aritu ziren, eta 2015 geroztik praktikan jarri dute. Aldaketen datuak azaldu zituzten eta baita 2015eko emaitzak ere. Instituzioen konpromisoa eskatu zuten: Ongizate Soziala, Hezkuntza, Osasuna, eta batez ere, familien parte-hartzea, gakoa baitira. Etorkizunera begira, hainbat helburu proposatu dituzte, lortzea espero dituztenak.

El CDIAT de ASPRONA se encuentra en Albacete. Practican un modelo de intervención en Atención Temprana centrada en la familia y basada en apoyos en entornos naturales. Durante los años 2013-2014 estuvieron inmersos en el proyecto piloto, y desde 2015 lo están implementando. Expusieron los datos obtenidos de los cambios, así como los resultados de 2015. Exigieron el compromiso institucional en: Bienestar Social, Educación, Salud y, sobre todo, la implicación de las familias, que son la clave. A futuro se han planteado retos que esperan conseguir.



12:30
12:50

**JUAN MARTÍNEZ**
Pedagogoa.
Logopeda.
Aspronako Laguntzen zuzendaria (Albacete)
Erabateko Gizarteratzerako Aholkularitza Sareko kidea.

Pedagogo.
Logopeda.
Director de Apoyos de Asprona (Albacete).
Miembro de la Red de Consultoría de Plena Inclusión.

**CRISTINA DÍAZ**
Psikopedagogoa
Albeceteko Asprona-Adepei Haurren Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko Zentroko koordinatzailea.
Gaztela-Mantxako Erabateko Gizarteratzerako Arreta Goiztiarraren Eraldaketa bultzatzeko taldeko kidea.

Psicopedagoga.
Coordinadora del Centro de Desarrollo Infantil y Atención Temprana Asprona - Adapei (Albacete).
Miembro del equipo de apoyo a la Transformación en Atención Temprana de Plena Inclusión Castilla-La Mancha.

Bideoa ikusi
*Ver video*



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

**Teoriatik praktikara: familien testigantzak**
**De la teoría a la práctica: testimonios de familias**

## Aspace Gipuzkoa




12:50
13:15

2 familia etorri ziren beraien esperientzia azaltzera. Aspace Gipuzkoa beraien seme-alabak zaintzerako garaian egiten ari den lana goraipatu zuten eta Arreta Goiztiarraren onurak azaldu zituzten, bai umeen garapenean, baita familiek praktikaren bitartez lortu dituzten ahaltasun eta gaitasunean ere. Bertaratuek, familia hauek Arreta Goiztiarraren bitartez bizi duten esperientzia eta garapena lehen eskutik ezagutzeko aukera eduki zuten, eta nola, eredu honekin bizitza normal bat eraman dezaketen.

Bideoa ikusi
*Ver video*

Acudieron 2 familias para contar su experiencia. Agradecieron la labor que está desarrollando Aspace Gipuzkoa en el cuidado de sus respectivos hijos e hijas y alabaron las bondades del modelo actual de la Atención Temprana, tanto en la evolución de los niños, como la capacitación y el empoderamiento que han adquirido los padres con la práctica. Los asistentes pudieron escuchar de primera mano la experiencia y la evolución que han vivido estas familias que mediante este método de Atención Temprana pueden llevar una vida normal.



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

## Minusbaliotasuna duten pertsonei babesa ematen dieten erakundeen berdefinizioa
## Redefinición de las organizaciones de apoyo a las personas con discapacidad

### Miguel Ángel Verdugo

Erakundeek gaur egun gainditu behar dituzten erronkak azaldu zituen: baliabideen urritasuna, zerbitzu eta laguntzen eskakizun handiagoa, zerbitzu orokorretatik banakakoetara pasatu, emaitza pertsonaletara zuzendu, autodeterminazio eta autonorabidean indarra, baliabide naturalak erabili, egitura bertikaletik horizontalera pasatu, ziurtasunean oinarrituriko praktikak indarrean jarri, eraginkortasun handiagoa bilatu, eta azkenik, baliabideen esleipena beharrizanen arabera egin, aurretik ebaluatuz. Bizi kalitateko ebaluazio sistemak ere aipatu zituen.

Expuso los retos actuales para las organizaciones: recursos menguantes, mayor demanda de servicios y apoyos, cambio de servicios generales a servicios individualizados, enfocado a resultados personales, énfasis en la autodeterminación y autodirección, uso de recursos naturales, movimiento de estructura vertical a horizontal, énfasis en prácticas basadas en la evidencia, búsqueda de una mayor eficacia y eficiencia y por último, la asignación de recursos con arreglo a una necesidad de apoyos, evaluados previamente. Se refirió también a los instrumentos de evaluación de calidad de vida.




13:15
13:45

Desgaitasunaren Psikologiako Katedraduna, Salamancako Unibertsitateko Psikologia Fakultatean.
Salamancako Unibertsitateko Instituto Universitario de Integración en la Comunidad (INICO) Institutuko Zuzendaria.
Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren, Gaztela eta Leongo Juntaren eta Salamancako Unibertsitatearen Desgaitasunari buruzko Informazio Zerbitzuko (SID) Zuzendaria 1990az geroztik.
1990az geroztik, Desgaituen Gizarteratzerako Masterra eta, 1993az geroztik, Desgaituen Gizarteratzerako Masterra (Programa Inberoamerikarra) zuzentzen ditu.
Siglo Cero aldizkariko Zuzendaria. FEAPS Elkarteak adimen desgatasunari buruz 1993az geroztik argitaratzen duen aldizkaria.

Catedrático de Psicología de la Discapacidad en la Facultad de Psicología de la Universidad de Salamanca.
Director del Instituto Universitario de Integración en la Comunidad (INICO) de la Universidad de Salamanca.
Director del Servicio de Información sobre Discapacidad (SID) del Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad, Junta de Castilla y León, y Universidad de Salamanca desde 1990.
Dirige el Máster en Integración de Personas con Discapacidad desde 1990 y el Master en Integración de Personas con Discapacidad (Programa Iberoamericano) desde 1993.
Director de Siglo Cero. Revista Española sobre Discapacidad Intelectual, editada por FEAPS, desde 1993.

Bideoa ikusi
*Ver video*



# urtarrila 21 enero 2016

EHUko Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma / Auditorio Centro Carlos Santamaría de la UPV
Donostia - San Sebastián

## Ondorioak eta amaiera / Conclusiones y clausura

### Txus Gomara
Aspace Gipuzkoa




13:45
14:00

**Lehenik:** familia da esku-hartzearen erdigunea. Familiari arreta eskaini familia bertatik, bakoitzaren berezitasunak errespetatuz, bakoitzaren sendotasunak goraipatuz eta bakoitzaren erabakiez fidatuz. **Bigarrenik:** umearengandik positiboki eraikitzea, bere sendotasunak, konpetentziak, lehentasunak eta beharrak kontuan hartuz, garapen pertsonala ahalbidetuko duten ikasketa funtzional eta adierazgarriak bultzatuz, gabezian erreparatu gabe. **Hirugarrenik:** familiaren funtzionamenduari lagundu, konfidantza eta konpetentziak emanez familiari eta erreferentziazko talde transdisziplinarreko profesional bat gehituz. **Azkenik:** eremua, hau baita beste eremu batzuekin nahastuz ikasketa testuingurua osatuko duena: familia, eskola eta sozio-komunitarioa. **Amaitzeko,** Arreta Goiztiarra errealitate bat izan dadin, ume eta familien onuraren alde erakundeen eta sektore sozialen arteko elkarlana ezinbestekoa da.

**Primera:** la familia es el núcleo de intervención. Atender a la familia desde ella misma, respetando sus singularidades, resaltando sus fortalezas y confiando en sus decisiones. **Segunda:** la construcción positiva desde el propio niño, contando con sus fortalezas, competencias, preferencias y necesidades, promocionando aprendizajes funcionales y significativos que propicien el desarrollo como persona y nunca fijándose en el déficit. **Tercera:** apoyo en el funcionamiento familiar, promueve confianza y competencias de la familia y aporta un profesional de referencia dentro de un equipo transdisciplinar. **Cuarta:** el entorno, ya que es el contexto de aprendizaje mediante diferentes entornos: familiar, escolar y socio-comunitario.

Concluyó insistiendo en que las instituciones y el sector social colaborando juntos en beneficio del niño y de su familia hacen que la Atención Temprana sea una realidad.

Bideoa ikusi
*Ver video*




ASPACE Gipuzkoa

Asociación de Parálisis Cerebral
Elbarritasun Zerebralaren Elkartea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Laguntzaileak / Colaboradores

ausolan auzo lagun

HARTMANN Going further for health

SETALDE

## KONTAKTUA / CONTACTO

aspace@aspacegi.org
Tno.: 943 21 60 55

**www.aspacegi.org**

Diseinua eta elaborazioa TEKO Diseño y realización